

Biharko eskola: gaitasunak lantzea ardatz



M A H A I - I N G U R U A

- Abel Ariznabarreta ■ Xabier Garagorri
- Maite Garcia ■ Arantzazu Loidi

ESPERIENTZIAK

- Amelia Barquín • Aitor Etxarte
- Beatriz Ugarte • Edurne Gartzia eta Arantza Iruretagoiena

Benetako iraultza?

Ahalik datu gehien irakastea zen garai batean eskola gehienek helburu. Egungo joerek, berriz, arrazoi eman diote minoritarioak ziren eskola batzuen filosofiari: ikaslearen gaitasunak dira landu beharrekoak, gaien bidez. Gaiak tresna dira, beraz, eta ez helburu. Filosofia honekin bat datoz Europako korronteak, hezkuntza lege berriak, Euskal Curriculum... Eta gaia puri-purian dagoenaren seinale dira azken aldian egin diren ikastaroak: Ikastolen Elkarteak Iruñean XIV. Jardunaldi Pedagogikoak antolatu zituen eta DEIER Behatokiak simposiuma, Donostian. Planteamendua iraultzailea da inondik, gaurko eskola erabat aldatzea eskatuko baitu. Baina benetan egingo al da iraultza hori? Edo diskurtsoa berrituta betikoa egiten jarraituko dugu? Mahai-inguruak eman dizkigu erantzunak, eta bukaerako artikuluen bidez, hezkuntzako esperientzia erreferente batzuk bildu ditugu.

■ Gorka Bereziartua / Estitxu Eizagirre
Mahai-inguruko argazkiak: Dani Blanco

Euskal Curriculumean bost gaitasun edo konpetentzia hartzen dira landu beharrezkotzat: komunikatzen ikasi, norbera izaten ikasi, pentsatzen eta ikasten ikasi, egiten eta ekiten ikasi, eta elkarrekin bizitzen ikasi. Ados zaudete hauekin, edo bada gehitu edo kendu beharreko konpetentziarik?

XABIER GARAGORRI. Galdera horren atzean dagoen galdera, zera da: Zein dira gaurko Euskal Herrian bizi den gazte batek bizitzarako behar dituen konpetentziak? Galdera horri leku desberdinetatik erantzun dakioke. Eta normalean ikastarloan ikuspegitik ematen da erantzuna, baina berez, planteamendu zabalagoa izan beharko luke. Beharbada, ikuspegi antropologikoagotik: Zein dira gizabanakook eta gizataldeek ditugun beharrak bizitzaren aurrean? Psikologiako teorialariek ere aipatzen dituzten beharrak nahiko antzekoak dira. Batetik bereizten dituzte biziraupenerako beharrak: janaria, edaria, osasuna, erreproduk-

zioa... Bestalde ditugu babes beharrak: etxea, jantzia, defentsa... Ondoren, izadiarekin harremanetan jartzeko beharra dago: Nola erabili naturaren indarrak nire zerbitzura, alegia, teknologia, zientzia... Beste behar bat da nola bizi besteekin, alegia, elkarbizitzaren antolaketa. Beste bat komunikazioa, hizkuntza... Beste behar bat da atseginak zaizkigun gauzak egitea: musika, dantza, dramatizazioa, artea, jolasa... Eta bizitzaren zentzuaz galderak egitea ere beharra da: nor naiz ni, zer egiten dut bizitza honetan...

Beraz, zein dira bizitzeko behar ditugun konpetentziak? Ba aipaturiko beharrei erantzuten dietenak, eta kultura bakoitzak bilatzen dizkio behar horiei erantzun zehatzak. Konpetentzia horien barruan, badaude hezkuntzarako konpetentzia orokor batzuk, egoera horietarako guztietarako aplikagarriak direnak. Baina desberdinak dira, nire ikuspegitik, hezkuntzarako konpetentzia orokorrak, eta oinarrizko konpetentziak, edo konpetentzia-giltzak. Oinarrizko konpetentziak edo konpetentzia-giltzak lirarteke bizitzaren beharrei erantzuteko ezinbestekoak zaizkigun eran-



Xabier Garagorri, Arantzazu Loidi, Maite Garcia eta Abel Ariznabarreta.

tzun horiek. Eta horretaz asko daukagu hausnartzeko. Niri ez zait nahikoa Europak esatea "zortzi edo bederatzia hauek dira". Hezkuntzako kompetentzia orokorrak dira, gehiago, laguntzaileak, bitartekariak... Beste kompetentzia oinarritzko horiek lortzeko.

ARANTZAZU LOIDI. Esango nuke aipatutako bost kompetentziak garrantzitsuak izan arren, bi daudela ardatzak eta beste guztiak barneratzen dituztenak. Bata da norbera izaten ikastea, eta bestea elkarbizitzaren ikastea. Beste hiruak bi horietan sartzen dira, eta batez ere norbera izaten ikastea. Nahiz eta gero xehetasun asko eta kompetentzia zehatz asko egon. Hain zuzen PRH (Personalidad y Relaciones Humanas) eskolan egiten dugun formazio lana bi kompetentzia horiekin uztartzen da: batetik, txikitatik norbera izaten ikasi duen pertsonak garatuko ditu berezko gaitasunak, eta horrek emango dio bizitzako egoera guztietan norbera izaten ikasteko aukera, erabakiak hartzen ikasteko aukera... eta aukera horiek ematen dizkioten bideak urratuko ditu bizitzan. Beste ardatz

nagusia litzateke harreman edo elkarbizitzarena. Hor sartzen dira komunikatzen ikastea, eta baita bestelako gaitasun zehatz asko ere. Komunikatzen ikasten duenak ikasiko du berezko izate horretatik inguruari eta gizarteari daukan onena eskaintzen. Hauek dira elkarbizitzarako kompetentziaren barruan, taldeko bizitzan geratzen diren fenomenoak, PRHn bereziki lantzen ditugunak: aspirazio eta beharren fenomenoak, eta tentsio eta gatazkak nola gestionatu... txikitatik landu beharreko gaiak dira.

ABEL ARIZNABARRETA. Euskal Curriculumean hasierako gogoeta planteatu zenean eta bost kompetentzia hauek definitu zirenean, iturria, Garagorrik planteatu duen bezala, kulturaren kontzeptuan zegoen. Eta garrantzitsua da azpimarratzea badugula guk ere gogoeta zehatz bat egiteko esparrua: geure gizartean eskolak bete behar duen funtzioa. Eta argi dago, funtzio horietako bat dela kultura transmisioa bermatzea ere. Beharrezkoa da kompetentzia hauek garatzea haurren garapen prozesu integralerako, baina

horrez gain, kultura transmititzeko funtzioa ere bete behar du. Gogoeta hasita dago, baina gehiago sakondu beharko genuke: Gaur egun, gure gizartean nola ulertzen dugu dinamikoa den eta etengabe birdefinitzen den kultura? Are gehiago kulturartekotasuna eta horrelako kontzeptuak txertatzen ari direnean. Eta euskal kultura? Interpretazioa egin behar dugu eta transmisio kultural horretan eskolak zer funtzio bete behar duen zehaztu. Eta azkenik, horren arabera curriculumaren barruan kompetentzia hauek txertatu behar dira, baina, geure gogoeatik ateratako funtzio soziala ere bete behar du.

MAITE GARCIA. Oso ondo osatua ikusten dut planteamendua, oso ondo jasotzen du hezkuntza integrala, alegia, haurren garapen osoa, eta zaila egiten zait kompetentzien arteko hierarkiarik jartzea, denak lotuta daude. Nire ikuspegitik oso garrantzitsua da alde psikologikoa, norbera izaten ikastea, eta horrekin lotutako alderdi kognitiboak: pentsatzen, ikasten eta ekiten ikastea. Baina beti ere bes-teekin elkarlanean, komunitateko kide izanik.

Beraz, kompetentziak oso ondo daude planteatuta. Baina nik azpimarratu nahiko nuke hori ez dela eskolaren lana bakarrik. Gauza bat da kompetentzia horiek egokiak direla eta eskolak landu behar dituela esatea, baina garbi izan behar dugu benetan kompetentzietan heztea hezkuntza komunitatearen eta gizartearen lana dela. Bestela saiakerak egingo dira eta hobekuntzak egongo dira, baina planteatu diren helburuak ez dira beteko. Diskurtso hau beharrezkoa ere bazen, LOGSErekin hezkuntza integralarena hasita zegoen, baina orain hartu duen zehaztapen maila oso garrantzitsua da.

Kompetentzien arabera antolatzeak benetako iraultza ekarriko du hezkuntzara? Edo modan jarri den diskurtsoa da, nahiz eta praktikan orain arte bezala jarraituko den?

X. GARAGORRI. Arrakasta izango duen edo ez, ez dakigu. Planteamendu honek aldaketarako aukerak eskaintzen ditu, eta arrisku batzuk ere baditu.

M a h a i k i d e a k

■ ABEL ARIZNABARRETA



EHUko Gasteizko Irakasleen Eskolako irakaslea

Diman jaioa (Bizkaia), 1952an. Historia Moderno eta Garai-kidean lizentziatua eta Psikodidaktikan aditu tituluduna. Irakaskuntza maila gehienetan aritu da irakasle, Lehen Hezkuntzatik unibertsitatetara, eta aholkulari pedagogiko. Hezkuntzan izandako ardura aipagarrienak: EHUko Gasteizko Irakasleen Eskolako zuzendariorde eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko zuzendari, eta ondoren, Hezkuntzako sailburuorde.

■ XABIER GARAGORRI



EHUko irakasle eta Ikastolen Konfederazioko aholkularia

Andoaindarra (Gipuzkoa). Filosofian eta Psikologian lizentziatua, Hezkuntza Zientzietan Masterra egina du eta Pedagogian doktorea da. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean irakasle, psikologo eta zuzendari aritua, baita batxilergoan eta unibertsitatean irakasle ere. Lan esparru nagusiak: ikasmaterialgintza, eleaniztasuna eta curriculum. Egun, EHUko Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean irakasle eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko aholkulari pedagogikoa.

Aukerak asko dira, baina laburrean esanda, batetik, aukera dugu Ariznabarretak esan duen bezala, oinarritzko hezkuntzaren esparruaren zentzuaz hausnartzeko. Hori klabea da, alegia, kompetentziak zertarako? Oinarritzko hezkuntzaren xedea zein da? Aukera daukagu kompetentziak ez zentzu utilitarista eta motzean ulertzeko, baizik, hezkuntzari zentzu bat emateko.

Berdin curriculum kontzeptuan eta ebaluazioan. Garcia aipatu du hezkuntza komunitateak hartu behar duela parte, eta nik ere hori ikusten dut benetako erronka. Ea ausartzen garen ebaluazio gaian eta hezkuntza kompetentzia orokorretan gurasoak eta ikasleak, bere neurrian, inplikatzeko eta autoebaluazioa egiten. Beraz, hezkuntzaren inguruan inplikazioa eta sinergia sortzeko aukera dugu.

Irakasleen rolaz eta irakasteko metodologiaz sakontzeko aukera ere ematen du. Planteamendu honetan ekintzak direnez ikasketaren ardatz, nahiz eta edukia integratu behar diren, proiektuen metodologiak hausnarketa sakon bat eskatzen du. Beste era bateko lan bat eskatzen du, ez hain arrotza, bestalde.

Eta beste aukera bat, ikastetxearen barne antolaketari dagokio: aukera oso ona dugu oinarritzko hezkuntza osotasunez ikusteko, eta ez zatituta, lehen etapa, bigarrena...

Gainera, Euskal Herriko lurraldeen artean curriculum adosteko aukera ematen digu. Azken batean hezkuntzari buruzko hizkuntza bera erabiltzen ari gara Europan, nahiz eta planteamenduak desberdinak izan. Beraz, aukera dugu apustu bat egiteko.

Arriskueta bat, berriz, oso curriculum utilitarista egitea da, oso kompetentzia zehatzetan oinarritua. Alegia, 70-80ko hamarkadetako helburu operatiboetara itzultzea, perspektiba motz horretara jotzea. Guk aipatutako bost kompetentziak oso zabalak dira, hezkuntzaren ikuspegi integrala dute. Baina badaude beste kompetentzia batzuk, batez ere lan mundutik eta lanbide heziketatik proposatzen direnak, eta horien arabera askotan ulertu izan da kompetentzia zerbait egiteko eman beharreko pauso zerrenda bezala.

Bost kompetentzia orokorrak aplikatu egin behar dira egoera jakinetan, batetik ikastaroen bidez, baina baita bizitzako beste egoera batzuetan ere.

■ MAITE GARCIA



HUHEZIKo (Mondragon Unibertsitatea) irakaslea

1964an Segovian jaioa, Arrasaten (Gipuzkoa) hazi eta egun Eskoriatzan bizi da. Psikologia ikasketak egin ondoren zortzi urtez Debagoienako bi ikastoletan aritu zen psikologo-orientatzaile lanetan, geroxeago unibertsitate irakaskuntzara pasatuz. Hezkuntza Psikologia eta Hezkuntza Bereziko eremuetan irakasleen formazioan aritua da eta 1999tik 2001ra HUHEZIKo Irakasle Ikasketen zuzendaria izan zen. Egun HUHEZI fakultateko irakaslea eta Hezkuntza Prozesuen Departamentuko kidea da.

■ ARANTZAZU LOIDI



Personalidad y Relaciones Humanas (PRH) Formazio Eskolako hezitzailea

40 urte. Aretxabaletan (Gipuzkoa) jaioa, Eskoriatzan bizi da. Informazio eta Komunikazio Zientzietan lizentziatua eta IVAPeko itzultzaile ikasketak egina. Hainbat hedabidetan lan egin ondoren, itzultzaile aritu zen administrazioan eta enpresan. Personalidad y Relaciones Humanas Formazio Eskolako psikopedagogian formatu zen eta metodologia horrekin lan egiten du egun, helduen heziketan: Ikasle, guraso, irakasle eta hezkuntza arloko erakundeentzat ikastaroak ematen ditu, talde lana eta laguntza indibiduala eskainiz.

Arriskua dago zeruan geratzekoa, alegia bost konpetentzia eder horietan, eta ez aplikatzen asmatzea. Beste arrisku bat Ariznabarretak aipatu duena da, konpetentzia ekintzekin lotuta dagoen neurrian, kulturaren transmisioa ahaztea. Hezkuntzaren funtzio nagusieta-koa da kultura transmititzea, eta mezu edo hizkuntza honek arriskua du funtzio hori despistatzeko. Presaka ibiltzea da beste arrisku handi bat.

A. ARIZNABARRETA. Bai horixe, presaren kontuan azken erreformaren esperientzia hor dago, eta ikasi behar dugu aurreko esperientzietatik. Azken erreformak teoriarik ondo oinarrituak izan dira, baina praktikan ez dira hain esanguratsuak izan. Alde batetik, diseinu fasean ez delako antolatu gero hori aurrera eramane behar duten eragileen behar bezalako partehartzerik, ezta irakasleen partehartzerik ere,

“**T** irakasleek uko egin beharko diete
I gauza askori: segurtasuna,
apunteak eta liburuak utzi eta sormenetik
abiatuta irakatsi beharko dute”

ARANTZAZU LOIDI



esango nuke. Gehiago izan da maila politiko-administratiboan esparrua adostea, eta gero Europatik edo ildo pedagogikoetatik datozen ideiak txertatzea. Baina irakasleria, eta hezkuntza komunitatea are gutxiago, ez da inplikaturik sentitu erabakitze prozesuan. Eta erabakitzerakoan inplikaziorik lortzen ez bada, oso zaila da gero aurrera eramatea tokatzen denean inplikazioa lortzea. Eta aldaketa horiek denak, ehuneko portzentaje handi batean irakasleak eramane behar ditu. Horregatik, praktikan gauzatu diren aldaketak oso azalekoak izan dira. Eta azken batez, hezkuntzan, erreformak irakasleek beraien irakaskuntza-ikaskuntzaren praktikara eramateko gai diren horretan gauzatzen dira.

Konpetentziak antolatzea benetako iraultza izango da planteamenduetan eta teoriarik. Honek aldaketa sakona eskatuko du, ez bakarrik curriculumean, baizik antolakuntzan, irakasleen perfilean, irakasle eskolen planteamenduan... mila gauzatan. Iraultza bai, baina benetako? Ez dakit. Baina uste dut ez dela moda hutsa. Edozein aldaketa planteatzean, aldaketaren bi dimentsio hartu behar ditugu aintzat, aldi berean: zer aldatu, alegia teoria pedagogikoak, baina baita ere nola aldatu, hau da, aldaketaren teoria. Bi faktore horiek batera garatu behar dira eta ez dakit bigarren faktore hori noraino garatu den. Michel Fullan-en 25-75 teoriari jarraituz, %25a eskaini behar diogu zer aldatu pentsatzeari, baina %75a nola aldatu aurreikusteari.

Nik hiru arrisku ikusten ditut. Batetik, proposamen teorikoaren konplexutasuna. Baina tira, hori gainditu daiteke benetako prestakuntza batekin.

Bigarren arriskua alderantzizkoa litzateke, gehiegi sinplifikatzea, eta oinarritzotzat jotzen dena helburu gorentzat hartzea. Benetan ebaluagarriak eta oso azalekoak diren konpetentzietan geratzea, eta ez hartzea atzean, planteamenduaren oinarrian dagoen mami guztia.

Eta hirugarren arriskua, jada aipatu dudana, arazo ideologikoa: hau da, konpetentzia hitzaren indar semantikoa eta lanbidetzari lotutako jatorria dela kausa, eskolaren tradiziozko funtzio sozial garrantziko-koenetariko bati, kulturizazioari, alegia, uko egitea. Bere berea duen eginkizuna, gure kasuan euskal kulturaren transmisioa bermatzea, eskolari ere badagokio.

A. LOIDI. Pozten naiz hau dena teoria huts bat ez bada, zeren niretzat arriskua hori da, teoriarik geratzea.

Kompetentzietei buruzko informazioa irakurrita, nik uste oso jende gutxi litzatekeela ados ez dagoena. Teorian denoi iruditzen zaigu oso ondo eta ideala. Arazoa litzateke, benetan praktikara ez eramatea eta benetako iraultza ez egitea. Eta iraultza, nire ustez, iraultza pertsonaletik etorri behar da. Hor zeregin bat duten pertsona guztiak –bai ikasle, irakasle, guraso, zuzendari, eta hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiak– aldaketa eta hobekuntza pertsonaletik pasatuta. Niretzat hori da benetako arrakastarako giltza: bakoitzak transmititu behar duen hori benetan sinestea, bere haragian pasatzea eta esperimendatzea. Bakoitzak transformazio pertsonala eginda etorriko da ikastetxearen transformazioa eta hezkuntza komunitate osoarena, eta gizartearena. Horretarako, irakasle eta gurasoengan mentalitate aldaketa sakona behar da, edo bestela ez da benetan gauzatuko. Mentalitate aldaketa, ez bakarrik teorian "bai, bai, bai" esan eta gero berdin jarraituta, baizik eta benetako zentzua emanda eta esperientzia pertsonaletik pasatuta. Lehenik eta behin norberaren kompetentzietatik ohartu behar dugu eta horretan lan sakona egin. Nik ikusten dudana da, irakasle jendearen artean badagokela horrelako behar bat, gose bat. Hutsune hori aspalditik ikusten dute irakasleek, eta zerbaiten bila badabil jendea. Bere kasa bide hori jorratzen ari den jendea iristen zaigu guri PRH eskolara.

M. GARCIA. Nik gehitu edo azpimarratuko nukeena da benetan zer garrantzitsua den talde hausnarketa egitea, bai komunitate moduan eta ondoren ikastetxeetan. Nik uste dut jendeak ez duela irudikatzen zer nolako iraultza edo aldaketa den. Guk Mondragon Unibertsitatean badaramatzagu urte batzuk kompetentzietan zentratuta, eta egia da jarri arte ez dakizula benetan non sartzen zaren; eta behin jarrita ere, konturatzen zara oraindik "nola egin" aldetik asko daukagula egiteko, ikasteko... Hausnarketarekin, garbi izan behar dugu zertarako hezi nahi ditugun neska-mutikoak. Behin hori erabakita, bidea elkarrekin egin beharrekoa izango da, eta prest egon behar dugu ziurgabetasun bati aurre egiteko. Edukien bidea urte askotan jorratu dugu, eta hau berria da guretzat. Horregatik beharrezkoa da, dakigunarekin oinarritzeko sensibilizazio eta formazio sendoa zabaltzea irakasleentz, gurasoentz artean... Hori delako modu bakarra, benetan, "zer landu" eta "nola egin" horretan pistak

“**K**ompetentzien lerro honek pentsarazi behar digu orain arte ematen ditugun eduki horiek guztiak garrantzizkoak diren hala ez. Garbi dago ikasten ditugun kontzeptuzko gauza pila bat kolokan jarriko direla, benetan gai hau aurrera baldin badao”

XABIER GARAGORRI

izateko. Helburua garbi dagoenean eta guztiok barnatzen dugunean benetan aldaketa zertan datzan, orduan hasiko dira agertzen normalean irakasleek dituzten mila baliabide, sormena... eta izandako mila esperientzietatik ateratako estrategiak, helburu hori gauzatzeko. Baina lehenengo ulertu behar dugu eta horretan sinestu. Bestela karga moduan ikusten da. Askotan formazioa eta hausnarketa aldaketaren lehen etapetan egiten dugu, baina gero jakintzat ematen da ondorengo etapetan sartuko direnak kasik berez integratuko direla. Eta ez. Hori eskola inklusiboarekin ikusi da. Eskola inklusiboaren aldeko apustu garrantzitsua egin da, administrazioaren diskurtsoaren aldetik, baina uste dut oraindik ere sensibilizazioa eta formazioa gehiago indartu behar dugu litzatekeela, baliabideak ahaztu gabe. Kompetentzietatik aldaketa dator, baina eskola inklusiboa oraindik ez dugu lortu, eta uste dut aukera polita dugula biek bat egiteko, oso ondo lotzen baitira. Horregatik ez da presarik komeni. Komeni da politikari hartzea, hezkuntza komunitate osoak jakitea benetan zer den lortu nahi dena, zertan datzan aldaketa, eta ondoren pausoak ematen hastea.

Kompetentziak badira hezkuntzaren ardatz eta ez jakintzak, ohiko irakasgai ardatzen ordez (euskara, historia, matematika...) ez al lukete kompetentzietatik izan behar irakasgai? Zertan aldatzen da egungo ereduak ohiko ikasgaietan antolatzen bada kurtsoa?

M. GARCIA. Nik uste metadiziplinen ikuspegia izan litekeela egokiena, hots, irakasgai batzuk bildu eta modulu metadiziplinarrak sortu non helburu/kompetentzia batzuei erantzuna emango zaien. "Meta" da, eta ez "multi" irakasgaien gainetik dagoen helburu nagusi batzuei erantzuten dielako moduluak, horretarako diziplina desberdinetik ekarpenak integratuz, jakina. Guk horrelako erronka baten aurrean ikusi dugu geure burua Mondragon Unibertsitatean. Irakasle eskolatik aterako ziren irakasleen profil profesionala diseinatu genuen, alegia, zer lortu nahi genuen. Eta horren arabera zer nolako kompetentziak landu behar ziren erabaki genuen: kompetentzia teknikoak, metodologikoak, pertsonalak... Eta kompetentzia horiek jorratu beharreko edukiekin lotu. Behin hori geneukala garbi ikusi genuen kompetentziak ezin genituela aurretiko irakasgai zerrendara eramanez, hori oso ikuspegi atomizista zela eta zailago bihurtzen zuela prozesua, kasik prozesuaren kontrako zerbait. Zeren irakasle guztiok jo behar badugu ildo beretik, garrantzitsua izango da benetan gure barne antolaketan ere elkarrekin aritzea, eta hainbat erabaki elkarrekin hartzea. Horrexegatik gure planteamendua metadisziplinarra izan zen, irakasgai desberdinekin moduluak sortu, eta hauen arabera ikasketak antolatu.

Pentsatzen dut derrigorrezko hezkuntzan ere posible dela eta ederra litzatekeela moduluak sortzea, non ikasgaien artean loturak egiten diren: bertan txertatuta dago zer kompetentziari erantzuten dieten ikasgaiak eta zer nolako edukiak lantzen diren. Ezin dira planteatu ikasgaiak alde batetik eta kompetentziak bestetik, zeren biek elkar elikatzen dute.

A. ARIZNABARRETA. Ados nago, bestela penduluaren arriskua dago, mutur batetik bestera joatekoa. Eta kontuan hartu behar dugu historia, tradizioaren pisua eta irakasleen prestakuntza ere arloka antolatuta dagoela.

X. GARAGORRI. Galdera da zein izan daitekeen eduki eta kompetentzien uztarketa egiteko bidea. Gaia bueltak ematen hasi ginenean, ikaragarrizko tentazioa izan genuen galtzerdiari buelta emateko. Ikuspegi antropologikotik eta beste hainbatetik, kompetentzien gaia era logikoagoan planteatzeko aukera ikusten genuen. Baina gero Ariznabarretak esandakoarekin topo egiten dugu: gaur egun, hezkuntza sistemaren

“**A**rriskua dago kompetentzia hitzaren indar semantikoa eta lanbidetzari lotutako jatorria dela kausa, eskolaren tradiziozko funtzio sozial garrantzizkoenatariko bati, kulturizazioari, alegia, uko egiteko”

ABEL ARIZNABARRETA

zutabea ikastarloak dira. Unibertsitatean irakasleen prestakuntza ikastarloan bidez egiten da. Beraien hautaketa ikastarloan bidez egiten da. Ordu-tegi sakratu edo madarikatua ikastarloan arabera egiten da. Mintegi-entolaketak, egitura guztia, inspektzioa... dena ikastarloan inguruan egituratuta dago. Hor ez bada goitik beherako aldaketarik ematen, ez jada eskolatik, unibertsitateetik ez bada aldaketa aurreikusten, utopia ikaragarria eroriko ginateke ikastarloak alboratuta. Nahiz guretzat ez izan osagarria, ikusi genuen gaurko errealitatean ikastarloan uztartu behar ditugula hezkuntza kompetentzia orokorrak. Sekulako iraultza izango litzateke irakasle guztiak bere burua hezitzaile moduan ikustea, ez matematika, hezkuntza fisiko edo musika irakasle soil moduan. Baizik, irakasle denek eginkizuna zera dela ulertzea: pentsatzen, ikasten, komunikatzen, elkarbizitzen... irakastea.

Bestetik, jabetu behar dugu hezkuntza kompetentzia horiek ez direla lantzen soilik eskolako garaian, eskolako egoera informalean ere lantzen dira: jolas orduan eta abar, eta nola ez, kalean, familian, komunikabideen bidez... Egoera horiek guztiak dira hezitzaileak.

A. LOIDI. Ni ere ados nago, oso inportantea da teoria hutsean geratuko ez den zerbait planteatzea. Alegia, ikasleek ez dezatela kompetentziak zer diren teoriarik bakarrik barneratu. Eta hori ez da ikasgelan bakarrik egiten, bizitzan sortzen diren mila egoeretan, jolas orduetan, bidaietan... Erroko aldakuntza izango da irakasleak irakasle izateko hezitzaile izatera pasatzea, rol oso hori hartuta. Hori ez da ikastetxeetako sistema aldatuta bakarrik egiten, sistema oso-oso aldatu behar da: fakultatean fisika ikasi eta gero irakasle izango

“**A**rriskua, oso curriculum utilitarista egitea da, oso kompetentzia zehatzetan oinarritua. Alegia, 70-80ko hamarkadetako helburu operatiboetara itzultzea, perspektiba motz horretara”

XABIER GARAGORRI

denak ere hezitzaile rola bereganatu beharko du. Horregatik ematen diot enfasia apustu pertsonalari.

A. ARIZNABARRETA. Baita ere kontuan hartu behar da, eskuratzen diren ezagutzak (bai kontzeptuzkoak, bai trebakuntzak eta bai balioak) kompetentzia bihurtzeko, egoera ez formaletara eramateko gaitasuna izan behar dutela ikasleek. Horregatik, kompetentzien garapena begiratu behar da, baina ez hezkuntza formalaren barruan ea lortu dituzten neurtzeko bakarrik, harago pentsatu behar da. Bizitzarako hezitzailea izan dadin, ez bakarrik eskolako ebaluaziorako. Kompetentzia, azkenean, horixe da, ezagutzen erabilera.

Jakintza gehiago irakastea noraino da bateragarria kompetentzietan trebatzearekin? Jakintzen exigentzia jais-teko prest gaude kompetentzia mailak irabaztearen truke?

A. ARIZNABARRETA. Nik ez nuke "truke" esango. Lehen, proposamen teorikoaren konplexutasuna aipatu dudanean, arrisku hori ikusten nion: hau ikustea lehendik egiten genuenaren gainean egin beharreko moduan. Txertatu egin behar dira, eta batak ez dakar besteari uko egitea.

Baina kompetentziak lantzeak denbora gehiago eskatzen du, azkarrago egingo litzateke irakasleak apunteak diktatuta. Denbora bera edukita, eta kompetentziak landuta posible da gaurko eduki kopuruari eustea?

X. GARAGORRI. Kompetentzien lerro honek hori jartzen du zalantzan. Pentsarazi behar digu, orain arte ematen ditugun eduki horiek guztiak garrantzizkoak diren ala ez. Guk hezkuntzako kompetentzia orokorrak bereizten ditugu, lehen aipatu ditugunak. Eta European eta LOEn aldiz, hezkuntzako kompetentzia oinarritzkoak edo kompetentzia-giltzak zeintzuk diren definitu dituzte. Eta zeintzuk dira horiek? Bada bizitza pertsonalerako, gizarterako, lanbiderako ezinbestekoak direnak. Ezinbestekotzaren galbahe hori pasatu behar dugu gaur egungo eduki pila batean, eta galdetu "eta hau zertarako?"... Horrek eskatzen du curriculumaren barruan hausnarketa sakona egitea, eta bahe horretan, gauza asko eta asko kendu, eta beste gauza asko gehitzea. Garbi dago ikasten ditugun kontzeptuzko gauza pila bat kolokan jarriko direla, benetan gai hau aurrera baldin badoa.

M. GARCIA. Nik uste dut hori dela kontua. Gakoa ez da kantitatea, jakintza gehiago edo gutxiago ematea, baizik erabakitzea benetan zer nahi dugun eta pertinente eta beharrezkoa dena irakastea. Kompetentziek emango diote gaitasuna ikasleari, gero bera beste eduki gehiagotara iritsi dadin. Eduki gehiago-gutxiago, lehengo diskurtso horretan jarraitzea, benetan gizartea aldatzen ari dela eta ezagutzara iristeko bideak ere aldatu direla ez ikustea da. Horregatik da garrantzitsua oinarrietara joatea: zer jakintza da garrantzitsua eskolan lantzea, zer ez du ikasleak beste modu batera lortuko?

A. LOIDI. Galbahea nahitaez pasa beharra dago. Ez bakarrik edukietan, ikasleari kritiko izaten eta pentsatzen irakastea da lehenengoa, eta berak ere galbahea pasatzen jakin behar du. Hor eduki asko eroriko dira, seguru, baina irakasleek ere uko egin beharko diete gauza askori: seguru daukatena albora utzi eta sormena gehiago lantzen, edo bere uztatik ematen hasi beharko dute... Segurtasuna, apunteak eta liburuak utzi eta sormenetik abiatuta irakatsi beharko dute. Baina inork ezin duenez irakatsi ez daukanik, hor iraultza benetan handia izan beharko luke.

A. ARIZNABARRETA. Gainera uste dut gizartea konaturatu dela, gaur egun ezagutzak daukaten hazkunde eta ugaritze erritmoarekin, ezinezkoa dela ezagutzak hauek guztiak heziketa formalaren barruan jasotzea,

“Trakasle eta pedagogo izango diren Unibertsitateko ikasleei begira, unibertsitatea aldatu beharra dago”

MAITE GARCIA

edozein delarik maila eta are gutxiago derrigorrezko edo oinarritzko eskolaldian. Halaber pertsonak, norbanakoak, bizitza osoan ikasten jarraitzeko beharra du, eta eskolak oraindik badu bere funtzioa horretan, jarraitzen duelako iturri garrantzitsua izaten modu sistematiko eta koherentean. Nahiz eta gaur egun erraz iristeko moduko informazio iturri ugari dagoen, eskolak jarraitzen du izaten informazio hori modu sistematiko eta antolatu batean aukeratzen duen iturri bakarra, funtsezkotasun eta baliozko irizpideak erabiliz horretarako. Baina gizartea jabetu da horretaz, eta beste esparru batzuetan egin du aldaketa, eta ez dio hainbeste garrantzia ematen ezagutzari, baizik informazio iturri egokiak aurkitzeko gaitasunari, irakurketa objektiboak egiteari, gauzak analizatzeko gaitasunari, ekimena lantzeari... Gauza bera eskatu behar dio eskolari ere, zeren gaurko eskolak, kompetentzietan oinarritutako sistema baten lan egiteko beharra du.

X. GARAGORRI. Nik bide horretatik gehituko nuke bizitzarako bai, baina enplegurako ere, eta lanposturako baliagarri direla kompetentzia hauek. Langile bat hautatzen denean edo profesional on bat hautatu nahi denean edozein esparrutan, eskatuko dizkizute kompetentzia zehatz batzuk, profesional bezala. Baina horiek bezain garrantzitsua izango da enpresarentzat, kompetentzia orokorrak noraino garatuta dauzkan: pentsatzeko eta etengabe ikasteko gaitasuna daukan. Egun edozein enplegutuan komunikatzen jakitea, gauzak adierazten jakitea oso garrantzitsua da, elkarrekin bizitzen jakitea esango didazue gaurko lanpostu batean garrantzitsua den, ez badakizu elkarrekin lan egiten, enpatia sortzen... eta norbera izaten jakitea ere beharrezkoa da, oreka emozionala izatea, ekintzailea izatea... Hau da, kompetentzia orokorrak bizitzako edozein arlotarako dira, baita lan mundu eta enplegurako ere. Horiek eduki batzuen bidez eskuratzen dituzu, baina edukiak, bere hutsean, tresna batzuk dira.

Nola neurtzen dira kompetentziak? Kompetentzien oinarri diren gaitasunak, desberdinak ditu gizaki bakoitzak. Denei kompetentzia maila bera eskatu behar zaie?

M. GARCIA. Ebaluazioan ere aldaketa oso sakona dator. Mondragon Unibertsitatean, hain zuzen, erronka horrekin egin dugu topo.

Badira ebaluatzeko joera desberdinak. Batzuk (Britainia Handia) nahiko murriztaileak dira, eta hauek planteatzen dute edozein kompetentziaren ebaluazioa ebidentzien bidez egitea posible dela. Ebidentziak esan nahi du nolabait frogatu behar duzula gai zarela zerbait egiteko. Kompetentzia norberaren gaitasunak ekintzatan jartzea da, beraz ekintzen bidez adierazi egin behar duzu gaitasun hori, eta horren arabera puntuazioa jaso. Baina horrek arrisku bat du: kompetentzien oinarri diren hainbat gaitasun –nortasun alderdiekin lotutakoak bereziki– oso konplexuak dira ekintza-puntuazioa parametroetara mugatzeko, beraz, puntuazio hori ez da erreala.

Bada beste joera bat, Alemaniatic datorrena, kompetentzien ebaluazioaren ikuspegi integrala duena. Honek kontuan hartzen ditu nortasunarekin lotutako kompetentziak ere, baina ziurtatzen du hauek txertatuta daudela lortu beharreko azken ezagutza edo ekoizpenean. Adibidez, pentsa dezagun matematika eta naturarekin lotutako lan-proiektu bat ebaluatu behar duzula. Proiektu horren planifikazioan elkarbizitzarako kompetentziak eta baita ere natura-matematikarekin lotutakoen lanketa txertatu duzu. Beraz, bi motatako kompetentziak ondo kudeatu/garatu behar dira lan-proiektu horrek emaitza egokiak izan ditzan... eta kuantitatiboki neurtuko duzuna azken ekoizpena izango da, baina ez “zuk 7 bat daukazu elkarbizitzan, eta zuk 8 bat komunikazioan”. Jakina, horrez gain nortasunarekin lotutako kompetentzien inguruko ebaluazio kualitatiboa egin daiteke, non ikasleari zein gurasoei kompetentzia hauen garapenari buruzko informazioa eta hobetzeko orientabideak ematen zaizkien. Egia da gaitasun oso desberdinak dituela bakoitzak eta testuinguruak asko baldintzatzen duela umearen garapena, eta ez litzatekeela agian justuena izango ebaluazio kuantitatiboarena. Gai hau da konplexuena eta gehien lantzeko duguna.



Abel Ariznabarreta: "Belaunaldi aldaketa handia datorkigu irakaskuntzan. Irakasleen %70ak 42 urtetik gora du. Horrek esan nahi du 10-15 urteren buruan irakasleen bi herenak aldatu beharko direla adinagatik. Ezinbestean, sartuko den belaunaldi berri horrek eraman beharko ditu aurrera erronka hezitzaile berriak".

Irakaslea behatzen eta feedbacka ematen joatea beharrezkoa da, kualitatiboki ere oinarizko balorazio bat egiteko, jakiteko pertsona hori nola doan prozesuan eta nolako aurrerapena lortzen ari den. Prozesuaren bukaera aldera espero denaren barruan non kokatzen den jakingo genuke horrela. Baina ezin dugu kompetentzien ebaluazioa, lehen edukiakin egiten genuen bezala planteatu. Bi motako ebaluazioak bilatu behar genituzke, kuantitatiboa eta kualitatiboa, eta edukiak eta konpetentziak oso ondo lotu.

A. LOIDI. Nik uste dut notaren zentzua edo ideia errotik aldatu beharra dagoela. Ikasle bakoitzari jarraipena egitea beharrezkoa da, eta prozesu osoa baloratzea, ez hainbeste emaitza, azken egun batean jokatzera ohituta gauden emaitza hori. Horrek eskatzen du jarraipen zehatza egitea ikasle bakoitzari. Garrantzitsua iruditzen zaidan beste

gauza bat da, eta aplikatzen hasia dena gainera, autoebaluazioaren ideia, maila guztietan gainera: ikasleak berak, txiki-txikitatik bere burua ikusten, bere puntu ahulak eta indarguneak jarrera kritiko batekin ebaluatzen ikastea, eta bere bilakaera bera epaitzeko gai izaten irakastea. Ebaluazio hori irakaslearekin bateratu beharko da.

X. GARAGORRI. Ados gaude. Nik garbi bereizten ditut hezkuntza konpetentzia orokorren ebaluazioa eta konpetentzia espezifikoa, eta azken horietan ebidentzia batzuk lortu ditzakezu. Baina hezkuntza konpetentzia orokorrak zenbat eta egoera gehiagotan aplikatu, ebidentzia gehiago izango dituzu, baina ez dituzu inoiz muturreraino eramango. Adibidez, pentsatzen ikasteko konpetentzia non bukatzen da? Zein da bere gailurra? Ebidentzia totalik, eta nota jartzekorik ez duzu izango.

Beste galderari erantzunaz, alegia, norberaren gaitasunaren arabera ebaluatu behar den, nik bereiziko nuke maila pertsonala, eta maila profesionala. Maila pertsonalean ikasle bakoitzari eskatu behar zaio berak dituen gaitasunaren arabera ahalik eta kompetentzia gehiago garatzea. Hor termometroa edo neurria, bakoitzaren gaitasun potentzial horiek dira. Hor ezin dugu urrunago joan, irizpidea da bakoitzaren ahalmenak muturreraino lantzea. Beste arazo bat da, jada maila profesionalean, edozein funtzionarako, ezaugarri eta kompetentzia jakin batzuk kanpotik eskatu egiten zaizkizula.

A. ARIZNABARRETA. Orain arte hitz egindakoan, ikaskuntza prozesuaren barneko ebaluazioa atara da, eta hemen erreferentzia jarritako helburuak dira. Helburuak dekretuan etorriko dira definituta, eta horiek aginduzkoak izango dira. Noski, jakintzat ematen da helburu horiek definitzerakoan kontuan hartu direla oinarritzko kompetentziak.

Baina bada beste arazo bat, praktikan orain arte ere eman dena: kanpo ebaluazioa. Legeak diagnostiko-ebaluazioak egitea aurreikusten du. Alegia, Lehen Hezkuntzako laugarren mailan eta DBHko bigarren mailan, kanpo ebaluazio bat, estandarra, egingo zaie ikasle denei. Eta hor oinarritzko kompetentziak dira ebaluagai, ez jakintza gaiak. Horrek eskatzen du, maila horietarako kompetentzien gutxiengo mailak zein diren zehaztu behar direla, eta baita dagozkien indikadore edo adierazleak ere. Nire galdera da: Noraino ez ditu honek kutsatuko eta eragingo, ez dakit onerako edo txarrerako, hain garrantzizkoak diren ikastetxe barruko ebaluazioak? Hau praktikan berehala jarriko da, datorren irailean lehen mailan hasiko da, eta hiruzpalau urte barru laugarren mailakoei ebaluazio hori egingo zaie. Badakigu goian kanpo frogak bat jartzeak nola kutsatzen duen beheko funtzionamendua, hor dugu unibertsitate sarrerako frogak adibidetzat.

X. GARAGORRI. Erabakiorra izango da ebaluazioa: zer erako ebaluazioa egiten den, izan ere kompetentzietan oinarritutako aldaketa honek aurpegi bat edo bestea izango du. Eta kontu horretan erabakiorra izango da PISA, OCDE-k mundu mailan egiten duen ebaluazioa, alegia. Egun ebaluatzen ditu hizkuntzak, matematika, natur zientziak... baina jada egitasmoan

sartuta du informazio eta komunikazio teknologietan elkarrekin bizitzeko kompetentziak ebaluatzea. Estatu denek begiratzen diote ebaluazio horri, eta argazkian polit aterahi nahi dute... horrek ikaragarritzko eragina du. Zeren azkenean aldaketa hauek praktikan jarriko dira neurri handi batean, kanpoko eragile hauek ebaluazioak ikuspegi horretatik egingo dituztelako, eta unibertsitateko ebaluaketak ere bide horretatik egitera iristean, akabo, jada inbutu horretan sartuko gara.

A. LOIDI. Noski, zeren barrutik beste mentalitate eta beste teoria batekin lan egin arren, kanpoko ebaluazioak gaur egun selektibitateak duen presioa izaten jarraitzen badu, horrek eragina izango du ikastetxe barruan.

A. ARIZNABARRETA. Denok norabide berean bagoaz, ebaluazio hauek ondo artikulatu daitezke, baina zaindu eta errespetatu egin behar da ebaluazio mota bakoitzaren esparrua, eginkizuna eta eragile edo arduradunak. Horregatik, garrantzitsua da aurretik adostea zer ebaluatuko duen bakoitzak, baina aurretiaz, eta ez norberak ebaluazio mota bat jarri eta gero besteei horren arabera jokatzeko eskatu edo, oraindik gogorragoa dena, behartu.

Aldaketa hau dena posible da eskola handitan egitea? Ez dago kontraesanean administrazioa gastuak arrazionalizatzeko bultzatzen ari den zentzuen kontzentrazio politikarekin?

A. ARIZNABARRETA. Nik arazoa ez dut horrenbeste ikastetxeen neurrian ikusten. Ikusten dudana da ikastetxeen autonomiaren aldeko apustu handiagoa egin behar dela, bai administrazioetik eta baita ikastetxeetatik ere. Eta ikastetxe proiektu serio bat egitea da garrantzitsua. Nire ustez, berriro ere aukera galtzen ari gara, apustua hezkuntza proiektuan egin behar da eta ez hainbeste curriculum proiektuan bakarrik. Curriculum proiektua teknikoagoa da, eta hori arlo horretako adituek egin dezakete, neurri batean behintzat. Baina hezkuntza proiektua hezkuntza komunitate bakoitzak egin behar du, berea, propioa duelako. Eta benetan ari gara urteak galtzen. 80ko hamarkadan ere curriculum proiektuan ipini zen enfasia, hezkuntza proiektuaren aldeko apustua alde batera utziz, nahiz eta oinarritzko



Arantzazu Loidi: "Egia da gurasook umeei eskaintzen diegun denbora eta kalitatea ez dela askotan nahi genukeena, baina ikastetxeen aldetik ere, badago sentsazioa gurasook traba egingo ote dugun, edo arrisku gogaikarria ote garen".

legedi guztian, ikastetxeen funtzionamendurako funtsezko tresnatzat aipatu.

X. GARAGORRI. Niretzako ere neurriak baino beste faktore batzuek gehiago eragiten dute. Gaur egunean, batez ere sare publikoko zentroek gai honi buruz pentsatu beharra dute: ikuspegi honek oinarritzko hezkuntza osotasunean hartzen du eta hautsi egiten da Derrigorrezko Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko eten hori. Planteamendu osoa egiten da: oinarritzko hezkuntza bukatzean zein dira gazte batek bereganatu behar dituen kompetentziak? Horren arabera, antolaketa logikoa litzateke zuzendaritza bat izatea denentzat, nahiz eta ikasle denak ez diren zentro bakarrean egongo. Eta jakina, koordinazio ikaragarria ere eskatzen du, baita Haur Hezkuntzarekin ere, Haur Hezkuntzatik 16 urtera arteko ikasketa hausturarik gabe eramateko. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kulturaren dagoen haustura ere gaintitu egin beharko da. Aurrerantzean titulu gradu bera izango dute Lehen Hezkuntzakoek eta Bigarren-goek, eta horrek lagunduko du kulturak bateratzen.

A. ARIZNABARRETA. Bai, hezkuntza publikoan hain zuzen oztupoetariko bat horixe da, partelazioa. Herrian hasten dira, eta agian ziklo guztiak bertan ez daudelako, haur hezkuntzan hasi direnetik batxilergoa bukatu arte hiruzpalau ikastetxe pasa ditzakete. Hala ere nik hori orekatu egingo nuke: beti izan naiz herri txikietan ere eskola mantentzearen aldekoa, haurren garapen logikoan hain garrantzizkoa den espazioaren jabetze prozesuan ezezik ingurune fisiko eta sozialarekiko identifikatze prozesuan ere, lehen esparrua, gertukoena, herria delako. Eta nahiz eta fisikoki ondoko herria hurbil egon, sozialki oso desberdina izan daiteke. Baina hortik aurrera, egia da administrazioari jarraikortasuna bermatzea eskatu zaiola.

[Hain justu kompetentziei buruzko bilerara doan Xabier Garagorri agurtu dugu]

Planteamendu berri honekin, irakasleei eskatzen zaie ez daitezela dagoen ikasgaia ematera mugatu. Aitzitik, hamaika balio eta gaitasun

“**B**izitzarako bai, baina enplegurako ere, eta lanposturako baliagarri dira konpetentzia hauek. Egun edozein enplegutuan komunikatzen jakitea, elkarrekin bizitzen jakitea eta norbera izaten jakitea oso garrantzitsua da”

XABIER GARAGORRI

transmititu ditzatela. Egungo irakasleak prestatuta daude horretarako?

M. GARCIA. Nik bereiziko nituzke jada irakasle direnak eta etorkizunean irakasle izateko prestatzen ari direnak. Nik uste, jada irakasle direnek jaso duten formazioa eta izan duten esperientzia, orokorrean ez doala norabide honetatik, gehienbat edukietan oinarritutako irakaskuntzan aritu dira. Dena dela, esango nuke multzo horretako irakasle batzuk baietz, oso ondo prestatuta daudela, euren alderdi pertsonalari eta esperientziari eskerrak: batzuek jada horren kontzientzia hartu dute, eta lehen aipatutako edukien bahea egina dute. Ikastetxe batzuek hezkuntza proiektua ere formulatua dute. Baina orokorrean, bai da beharrezkoa horri buruz lasai hitz egitea eta oinarritzeko formazioa jasotzea. Eta irakasle eta pedagogo izango diren unibertsitateko ikasleei, edo irakaskuntzan sartuko diren gainerako lizentziatuetakoei begira, unibertsitatea aldatu beharra dago. Badago paradigma bat errepikatu egiten dena: nola ikasi dugu guk? Bada horrela irakasten jarraitzen dugu. Oso garrantzitsua da ikasle hauek formatzeko ikasketa plana eta curriculum bera errebisatzea, baita unibertsitatearen ildo metodologikoak... dena. Nik uste dut Europan dagoen korrontearekin batera joango garela pausoak ematen, jada gu hasiak gara.

A. LOIDI. Hezitzailearen rola barneratzea garrantzitsua da, matematika edo fisikako irakasleak ere pertsona izaten irakatsi behar duela ulertzea, eta horretarako, argi izatea norberaren esperientzian oinarritzen dela dena. Irakasleek, dena delako

ikasgaia irakasten dutela ere, hezitzaile bokazioa edukitzea da gakoa. Benetan bokazio hori duen irakasleak asmatuko du aldaketa hau egiten eta aldaketa honek eskatzen duen transformazio horretan sartzen. Baina egokitzapen bat egin beharra daukate, zalantzarik gabe. Eta lehenik, planteamenduaren informazio osoa eman behar ko zaie irakasleei, ahalik zehatzen, eta gero horretan formatu.

Irakasleen lehen jarrera izan daiteke pentsatzea: eta oraindik gehiago ikasi behar dut? Baina kontua ez da materia gehiago ikastea, baizik izaten ikastea, gero hori transmititzen ikasteko. Eta hori ez magisteritza ikasleek bakarrik, baizik, edozein ikasgai ematera ikastetxera inguratzen direnek ere bai, zein administraziokoek... Hezkuntza komunitate osoak.

A. ARIZNABARRETA. Bai, honek irakasleen hasierako eta etengabeko formazioa beste modu batera planteatzea eskatzen du. Nik uste dut momentu egokia dela aldaketak egiteko, Europako goi mailako irakaskuntzaren berrantolaketa, Bologna izenekoa, baliatuz. Eta batez ere etorkizunean irakaskuntzan ariko direnen prestakuntzan ari direnek, irakasle eskolek, planteatu behar dute kontua ez dela bakarrik ikasturteak, jakintza arloak, kreditu sistema eta abar berrantolatzea, baizik eta hausnartzea zer funtzio bete beharko duten irakaskuntzako profesional berri horiek. Gogoeta hori egin behar dugu maila lokalean ere, eta erabaki zer eskatzen dion gaurko gizarteak eskolari, eta horren arabera zer irakasle behar ditugun.

Ikastetxeetan lanean ari direnak, nola edo hala jada klabe berriekin ari dira, 90eko erreformatik hona. Eta batzuk klabe hau ulertuko dute eta emango dute urrats hori. Baina datu garrantzitsu bat: belaunaldi aldaketa handia datorkigu irakaskuntzan. Irakaskuntza publikoan eta kontzertatuan, irakasleen %22ak 50-52 urte baino gehiago ditu. Pentsa egun erretiroak hartzen ari direla 60-62 urteko irakasle anitz. Baina multzo honi gehitzen badiogu 42-43 urtetik gorako irakasleen kopurua, irakasle denen %70a da. Horrek esan nahi du 10-15 urteren buruan irakasleen bi herenak aldatu beharko direla adinagatik. Ezinbestean, sartuko den belaunaldi berri horrek eraman

behako ditu aurrera XXI.mendeko gizarteak eskolari zuzentzen dizkion eskariei erantzutera etorri beharko duten erronka hezitzaile berriak, kompetentzietan oinarritutako heziketarena barne. Ezin dugu irakasle eskoletan orain arteko gauza bera egiten jarraitu, lehengo eskematan. Hau da daukagun erronka garrantzitsua, eta baita aukera ere. Belaunaldi aldaketa eta goi mailako irakaskuntza esparruaren berrantolaketa ditugu eskura, baina geuk egin behar dugu, ez du inork egingo geure orde.

A. LOIDI. Bai, belaunaldi aldaketa aukera bat ere bada. Ez du esan nahi gazteek beste mentalitate bat dakartenik derrigorrez, baina teorian aukera polita da.

Sistema publikoko irakasle asko maiz aldatzen da ikastetxez (ordezkapenak, lekualdatzeak direla...). Hori bateragarria da ikasleak kompetentzietan trebatzeak eskatzen duen lan jarraituarekin?

A. ARIZNABARRETA. Irakasleriaren mugikortasuna eta estabilitate eza arazo bat da, baina ez kompetentzien planteamendu hau aurrera eramateko orduan soilik. Konpondu beharrekoa, baina ez bereziki hau ahalbidetzeko baldintza den neurrian, oro har hezkuntza kalitatearen hobekuntzarako baldintza den neurrian baizik.

A. LOIDI. Planteamendu hau ez dakit nola gauzatu den praktikan, baina ondo zehazten bada, eta garbi baldin badaukagu zer egin behar den eta nola, irakasleen aldaketa ez da nahitaez jarraikortasunerako oztopo. Irakasleak etengabe aldatzea oztopo da, batetik, denbora gutxirako datorren irakaslea ez delako bustitzen, eta bestetik, denbora gutxi ematen duen irakasleak ez duelako astirik ikasleak ongi ezagutzeko, komunikazio on bat lantzeko, konfiantza sortzeko... Horregatik da nire ustez oztopo, eta ez prozesuan traba izango delako.

A. ARIZNABARRETA. Bai, prozesuaren koherentzia bermatzeko tresnak badaude, baina Loidik esandakoa da gakoa. Eta egungo errealitatean,

“**I**raultza, nire ustez, iraultza pertsonaletik etorri behar da. Hor zeregin bat duten pertsona guztiak aldaketa eta hobekuntza pertsonaletik pasatuta. Hori da benetako arrakastarako giltza”

ARANTZAZU LOIDI

bizirik irautearekin nahikoa egiten dute egoera horretan dauden irakasle batzuk.

A. LOIDI. Egoera horretan dagoen irakaslea kontziente da zer arazo sortzen duen, baina aldi berean ezin du gehiago egin. Eta hori nork sufritzen du? Ikasleek.

A. ARIZNABARRETA. Antolaketa maila horretaz hitz egiten hastean, jada atetik kanpora utzi behar dituzu mahai honetan orain arte erabilitako argumentu pedagogiko hainbat. Zeren hori administrazioak eta langileen ordezkariak adosten dute, gehienbat. Eta hor jada joko arau batzuk hain-hain kateatuta daude, edozer gauza aldatzeko dena berrantolatu behar duzula: izendapenak, lehentasunak, zerrendak, funtzionario sartzeko baldintzak...

A. LOIDI. Gainera ez da erabaki kontua bakarrik, errealitate kontua ere bada. Bajak hartzen dituen irakasleak ordezkatu beharra dago, eta horko problematika ez da erabaki bidez konpontzen. Hor dago errealitate bat, alegia, langileek bajak ere hartzen dituztela.

A. ARIZNABARRETA. Hori konpontzeko badaude beste bide batzuk, esaterako, aldi jakin baterako proiektuen arabera aurrakustea ikastetxe bakoitzak epe horretan behar duen irakasleria eta horren arabera irakasleriaren egonkortasuna ziurtatzea. Eta aurrakustea, baita ere, biltzen diren datuen azterketatik ateratzen diren portzentajeen arabera, urtean zehar arrazoi desberdinengatik –laneko bajak, ikasketak baimenak, prestakuntza ekitaldiak, koordina-

zio ardurak,...- ikastexean emango diren huts egi-teak, baina beti proiektu baten arabera justifikatuz. Edozein kasutan, sakonago aztertzea eskatzen duen gaia dela deritzot, ikastetxeen autonomiaren garatze aldera egin beharreko planteamendu zabalago baten barruan, alegia.

M. GARCIA. Oso garrantzitsua litzateke baja kasuetarako benetan koordinaziorako antolaketa eta tresna eraginkorrak jartzea eta ikasleen jarraipen hori ahalik zehatzena izatea. Datorren irakasleak izan dezala ikasle bakoitzari buruzko oinarriko informazioa, nondik abiatzen den, aurretik zer bide egin duten eta prozesuaren zer puntutan dagoen jakiteko.

Gurasoen parte-hartze handia eskatzen du eskola eredu berri honek. Gurasoak parte izan nahi dute, badute inplikaziorik? Eta eskolak nahi du gurasoek parte hartu dezaten edo intrusismo-tzat hartzen du askotan?

A. LOIDI. Oinarrikoa da, seme-alabak konpetentzietan hezi nahi baditugu, geure burua ere konpetentzietan hezte. Hori da ardatza: gurasook eta irakasleok, pertsona bezala trebatzea. Nik ezin diot semeari ezer transmititu neuk ezagutzen ez baldin badut. Norbera izaten, elkarrekin bizitzen eta komunikatzen dakien aitak edo amak, hori transmitituko dio txikitatik umeari, eta oinarri batzuk jarriko dizkio. Nik uste dut horretatik urruti gaudela. Batetik, guraso askok bizi ditugun zirkunstantziengatik, lana, estresa eta denbora gehiago atera ezina jende askorentzat errealitate dira. Egia da gurasook umeei eskaintzen diegun denbora eta kalitatea ez dela askotan nahi genukeena, eta askotan eskolaren esku ere uzten dugula hezteko ardura, zoritxarrez. Baina ikastetxeen aldetik ere, askotan laguntza eta elkarlana zinez estimatzen den arren, badago sententzioa gurasook traba egingo ote dugun, edo arrisku gogaikarria ote garen. Eta errealitatean noraino garen traba ere ikusi beharko litzateke. Baina kontua da kondanatuta gaudela elkarrekin bizitzera eta parte hartzera, horretaz ez dago zalantzarik.

A. ARIZNABARRETA. Ez gurasoek bakarrik, eredu honetan, gizarte aldakor batera egokitze

gai izango diren herritar kritiko eta autonomoak hezteaz mintzo garenean, baloreetan oinarritutako heziketaz mintzo gara derrigorrez. Horrek ezagutzen transmisio hutsa gaintzen du, eta heziketa honetan, nik uste dut gizarte hezkuntza eragile guztiak inplikatu behar ditugula. Afrikako esaera zahar ezagun batek dioena egia da: haur bat hezteko tribu osoa behar da. Hau ezin du eskolak bakarrik aurrera eraman, gizarte osoak bere heziketa eginkizuna berreskuratzea da irtenbidea, eta gurasoen eginkizuna funtsezkoa da horretan.

Baina zailtasunak ditugu etxean balioen heziketa egiteko. Zeren balioen heziketak hiru maila urrats konziente eskatzen ditu: Maila teorikoan lantzea informazioa eta ezagutza, gero dator maila pertsonala, jokabide eta jarrera pertsonalen azterketa kritikoa egitea, eta hirugarren maila, gizarte mailako konpromezua. Eta sarritan, balioen heziketa egin beharrean, gauza puntualetan bakarrik parte hartzen dugu, eta kasu batzutan, guraso bezala gureak bakarrik edota berariaz geureak ez diren espazioetan sartuz eta eraginez gainera. Hortik dator konfrontazioa eta irakasleok gurasoen parte hartzea espazioaren agresio moduko bat bailitzan, eta batez ere presio bezala bizitzea. Baina gurasoek bere berea dute espazio bat hezkuntzan, ez bakarrik eskolan, etxean ere bai. Eta haurren garapenerako lehen espazioa etxea da, nahiz eta egun lau hilabeterekin "haur-eskola"ra eraman, ez da amaitzen horrekin familiaren (kontzeptu hau bere zabalean hartuta), eginkizuna. Familia da heziketa espazio funtsezkoa eta jarraitzen du erantzukizun hezitzaile osoa izaten haurren nolabaiteko eskolaratze fasea hasi ondoren ere.

A. LOIDI. Hori, azkenean, kezka pertsonal kontua da, gurasoen garapen pertsonalean sartzeko dena. Etxean behar adina inplikatzeko denak, berdina da eskolan inplikatzeko dena edo ez, haurraren fruitu bat emango du. Noski, etxean eta eskolan inplikatzeko, biak ezinbestekoak dira, haurrari dena osotasun bat dela transmititzeko. Eta haurren heziketan inplikatu dagoena, etxetik hasita, inplikatu da ez bakarrik ikastetxean, baita haurren lagun taldean, eta guraso taldean ere bai... Eta baikorra izateagatik, esango nuke gurasoen artean kezka handia dagoela. ■

Hizkuntzen trataera bateratua. Hegoalde ikastola (Iruñea)

"Jarraituko dugu testuen azterketa bertikala egiten, sekuentzia guztiaren garapena eginez, testuen berrazterketa osatzen guztioi estruktura bera emateko edota ebaluazio bateratua garatzen"



Aitor Etxarte*

Ondorengo lerroetan ikastolan lantzen ditugun hiru hizkuntzen artean egin dugun hausnarketaren berri eman nahi dugu. Abian dagoen asmoa izanik, egindako bidea erakutsi nahi dugu ezer baino gehiago.

Hasierako erabakiak

Gure ikastetxea 1977-78. ikasturtean sortu zen. Hegoalde Iruñeko Udal ikastola izan ginen urte luzeetan eta egun Hegoalde Ikastola gara. Orduetik hona irakaslearen talde esanguratsuen finkoa izan da eta bertan lanean aritu gara, sortutako proiektu guztiei iraunkortasuna emanez. Elkarrekin lan egiteko ohitura garatu dugu eta hezkuntzaren berrikuntza ezberdinetan proiektu anitzak gauzatu ditugu ikastetxearen historian. Nafarroako ikastetxe publiko gehienak bezala, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea da Hegoalde, beraz, ikasleak 3-12 urteko tartea egiten dute gurean.

Azken ikasturteetan formazio asmoetan toki berezia egin diogu hizkuntzen inguruko hausnarketari. Urteetako formazio teoriko-praktikoetan erabakigarriak izan dira M. Nemirosky, J. Dolz, Uri Ruiz edo M. Sainzen gidaritzan egindako jardunak. Horien ondorioz, besteak beste, ikastolako ziklo guztietan material didaktikoak egituratzeko kultura sortu eta indartu da testu zehatzen garapen osoak eginez edo osagarriak diren materialen azterketa burutuz.

Gauzak horrela, 2001-2002 ikasturtean agerian zegoen egoerak adierazten zuen hizkuntzak (eus-kara eta gaztelania) lantzeko sekuentzia eta baliabi-

de asko eginak genituela, beti ere, testualitatearen ikuspuntutik. Material hauen ekoizpena zikloka egiten zen eta testu guztien alderaketa bertikalen premia zegoen, ziklo batetik besterako testuen arteko harremanak landu gabe zirelako. Bestalde, ordura arte hizkuntza bakoitzak bere garapen propioa zuzenez, sarritan ez zen egokia testuen arteko lotura hiru hizkuntzetan.

Behar ziren berrikuntzak gauzatzeko ezinbestekoa zen, lehenik eta behin, hiru mintegi zirenak –hizkuntza bakoitzarentzako bana– bakarra bihurtzea eta ikuspuntu orokorra aldatzea, ikastetxean lantzen diren hiru hizkuntzetan eremu komunei buruzko hausnarketa eginez, hau da, hizkuntzaren trataera bateratua (HTB) lantzeko bitartekoak jarritz.

Lana abiatu zen genuen egoeraren azterketa eginez. Horretarako hiru eremu ezberdinetan banatu ziren gure errealitatea islatzen zuten ikuspuntuak: hezkuntza komunitatean hizkuntzaren lanetan adostasuna lortzen zuten ezaugarriak, adostasuna lortu baina gauzatzeko arazoak suposatzen zituztenak eta zalantza sortzen zutenak. Hiru eremu hauetako formulazioak argi agertzen zuen hizkuntzen didaktikan guztiontzat komuna zen oinarria: zer eraginkorra, zer interesgarria eta zer zalantzakorra.

Asmoaren definizioa

2002-2003 ikasturtean oinarritzko irizpideak komunean jartzeko bideari ekin genion Vademecum ireki bat osatuz, HTB gaia lantzen duten artikulua teorikoa eta esperientzia esanguratsuekin, eta bertako ekar-

"Testu tipologia bateratua erabili da, funtsean J. Dolzen proposamena jarraituz (Narrazioa, Kontaketa, Argudioa, Azalpena eta Deskribapena)"

penak guztion artean eztabaidatuz. Lehenago aipatu dugunez, urteetan formazioa jasotzerakoan hautatu dugun ildoak testuala izan da eta ikastetxean sortu edota egokitu ditugun materialeak ere bide beretik jo dute. Beraz, HTBaren definizio orokorra egiterakoan, aipatutako Vademecumaren laguntzaz, gutxieneko adostasuna formulatzerakoan arazoak ez dira larriegiak izan eta ondorengo garapen guztietan erreferenteak izango diren baieztapen orokorrak adostu ziren.

Testuen mapak

Aurrekoa bukatu ondoren, ikastolan lantzen ziren testu guztiak mapa bakarrean jaso genituen (2002-2004). Lan luze eta konplexu honek helburu ezberdinak zituen. Alde batetik, irakasle guztiek ikastolan lantzen diren testu guztien berri eduki behar dute, sarritan bere eremuan direnak bakarrik ezagutzen dituztelako. Hizkuntza ezberdinetan lantzen diren testuen egoera ezagutu behar du, bestetik, bere lanaren globaltasuna agerian edukitzeko.

Lana bideratzeko testu tipologia bateratua erabili da, funtsean J. Dolzen proposamena jarraituz (Narrazioa, Kontaketa, Argudioa, Azalpena eta Deskribapena), eta testu bakoitzarekin bi zehaztasun maila ezberdin agertuz: trinkoa, ikuspuntu panoramikoa ematen duena, eta garatua, bere zehaztasun guztiekin (Generoa, Kontestua, Koherentzia, Eduki tematikoa, Egitura, Antolatzaileak, Sintaxia, Ortografia).

Tresna hau eztabaida ezberdinak gauzatzeko oinarri praktikoa da: Testu bera hiru hizkuntzetan programatzeko, egindako programazioetan diren arazoak identifikatzeko, programazioetako hutsu-neak osatzeko, hizkuntzen arteko sekuentziak berrikusteko edo ebaluazioa era bateratuan antolatzeko.

Hemendik aurrerakoa

Zer dugu hemendik aurrera? Egindako bideak, nahi gabe, datorrena erakusten digu. Horrela, jarraituko dugu lantzen diren testuen azterketa bertikala egiten, sekuentzia guztiaren garapena eginez, testuen berrazterketa osatzen guztioi eitura bera emateko edota ebaluazio bateratua garatzen.

Laburbilduz, ikastetxean kultura profesional sortzailea eta autonomoa bultzatzeko asmoa eduki dugu HTBren proiektua gauzatzeko. Lanak hizkuntzen trataera bateratua du helburu baina, aurrekoarekin lotuz, irakasle taldearen protagonismoa azpimarratuz. Hau ez da lan talde trinko batek sortutako asmo baten aplikapenez garatzeko proiektua. Irakasle sortzailearen alde egiten dugu, lan taldean aritzeko prest dagoena, formazioa eta hausnarketa praktika komunarekin lotzen dakiena.

Ikastetxerako kutuna den egitasmo batek bakarrik sor dezake ilusioa, praktikak hobetzeko aukera ematen duelako, eztabaida bideratzeko tresna delako. Erronka profesionalak gure gatz eta piperra diren neurrian lan interesgarri, berritzaile eta sortzailea egiten ari garela sentituko dugu. Hori ezinbestekoa da gure ogibidean.

** Hegoalde ikastolako zuzendaria*



ZALDIERO

Ekoeskola: Tolosako Samaniego ikastetxea

“Samaniego ikastetxeak jasangarri kontzeptua praktikan islatzeko aukera izan du Haur Hezkuntzarako egin den eraikin berriarekin. Bioklimatiko eta jasangarria praktikan”

Ingurumenarekin lotutako heziketa eskaintzen urte batzuk daramatza Tolosako (Gipuzkoa) Samaniego ikastetxeak. Ezaugarriak: Samaniego herri ikastetxea “D” ereduko eskola publikoa da, Tolosan dago (Santa Lutzia auzoa) eta 550 haur ditu, 2-12 urte bitartekoak.

Entzuten dena ahaztu egiten da; ikusten dena, gogoan gelditzen da; eta bizitzen dena ikasi egiten da. Aldaketa klimatikoa eta ingurumen arazoak hitzetik hortzera erabiltzen diren gizarte honetan esku hartzeko konpromisoa hartu du Tolosako Samaniego ikastetxeak. Eta, eginez ikasiz, ingurumenaren alde lan egingo duten pertsonak hezi nahi dira bertan.

Ez da atzo hasitako bidea, urte asko baitaramatza helburu eta bide horretan gogor lan egiten. Badira jada hamar urte eskolan ingurumenarekin konprometitutako proiektua abian jarri zela. Jolastoki zikinaren aurrean zer nolako jarrerak eta edukiak landu pentsatzen hasi ziren bertako irakasleak. Konturatu ziren ordea, ikasleen partaidetzarik gabe jai zutela, eta ingurumena jolastokitik harago zihoala. Eta, arazo zehatz horretatik abiatuta, pixkanaka eskola komunitate osoa inplikatzeko hasi zen.

Kezka eta interesa piztuta, Madriletik etorri zitzairen lan egiteko aukera. Ekoeskola deituriko proiektuan sartzeko ausardia izan zuten. Honek islada izan zuten, noski, hezkuntza proiektuan, eta eskola komunitatearen parte hartzearen oinarriak finkatzen hasi ziren. Hasteko, Ingurumen Batzordea sortu zuten, irakasleek gain, ikasleak eta gurasoak ere bertan inplikatuz. Eskolako eguneroko jardueran ura, energia eta hondakin solidoak eragin zuzena zutela ikusirik, hondakin solidoak aztergai hartu zituzten hastapen haietan.

Horrela, eta lan askoren ondoren, Bandera Berdea jaso ahal izan zuten 2002. urtean. Urte hartan bertan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak antolatutako

Aste Berde saria jaso zuten. Bidea sendotzen zihoan, ideiak argitzen, eta gogoak bizitzen.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumenaren alde lan egiteko deialdietara jo zuten, eta horrela, urtez urte, ingurumen proiektu anitzetan murgildu izan dira. Azken urteotan, AGENDA 21ean murgilduak dabilza, horrela, Tolosako beste ikastetxeekin batera, eta udaletxe eta herriaren partaidetzaz baliatuz, herri mailako azterketa eta proposamenak bultzatzen dituzte Samaniegoko ikasleek.

Helburua argi dute bertan; ikastetxe parte-hartzailea, anitza, kritikoa eta osasungarria sortzea.

Parte hartuz ikasten

Ingurumen heziketan oinarria partaidetza da, hau da, ikasleek bultzatutako asmoak eta proiektuak aurrera eramateko aukera izatea. Ikasleak prestatu behar dira baliabideen kudeaketa iraunkorrerako, negoziatziorako, foroan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko behar diren gaitasunak izateko. Garapen iraunkorrerako hezkuntzak bidea ematen du ikastetxeek komunitateko aldaketa-prozesuetan zuzenean parte hartzeko.

Horretarako, ingurumen batzordea dute tresna nagusi. Ingurumen batzordea horrela osatuta dago:

– Eskola komunitatearen Ingurumen batzordea: Eskola Kontseiluko ordezkari bat, guraso elkarteko ordezkari bat, bi guraso bolondres, lau irakasle (ziklo bakoitzeko bat), sei ikasle (6. mailakoak) eta ikasketa buruak osatzen dute.

– Ikasleen Ingurumen batzordea: Batzorde honetan, 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleek hartzen dute parte. Bertan, bakoitzak momentuko gaien inguruan bere gaitasun eta ahalmenen ekarpena egingo du. Ikasgela bakoitzeko bi ikasleek hartzen dute ardurua hau, eta bertako gaiak eta ondorioak ondoren geletan azalduko dituzte. Azkenik, geletako ekarpe-

nak jaso batzordera itzuliko dira, eskola eta herri mailako ondorioak eta proposamenak zehazteko. Hauekin, Eskola komunitatearen Ingurumen batzordera zuzenduko dira.

– Irakasleen Ingurumen batzordea: Astero, lau irakasle batzen dira, ziklo bakoitzeko bat, proiektuaren jarraipena zehazteko.

Ikastetxeko kudeaketa jasangarria, curriculum berrikuntza eta ikasturteko ekintza plana bideratzea dira Ingurumen batzordeko funtzio nagusienak. Irakasle bat da Ingurumen batzordeko koordinatzaile gisa aritzen dena. Honek, ordu lektibo batzuk libre ditu bere zereginak betetzeko.

Eskola komunitatetik harago doaz ordea, eta herri mailako ikastetxetako foroan hartzen dute parte. Foro hau, AGENDA 21aren barruan kokatzen da, eta Tolosako ikastetxeek lortutako ondorio eta proposamenak batzen dituzte, ondoren udaletxera zuzentzeko asmoz.

Azkenik, udaletxean, eta udalbatzarekin, ateratako ondorioak aztertu eta udal konpromisoak lortzen saiatuko dira ikasleak, herriaren kudeaketan parte hartuz. Noski, ikasleen konpromisoak ere zehaztuko dira, denen artean Tolosaren garapen jasangarria bermatu nahiaz.

Laburbilduz, hona hemen prozesu honetan azken hamar urteotan jorratu diren gaiak:

IKASTURTEA GAIAK

1997-1998	Hondakin solidoak
1999-2000	Ekoeskola
2001-2002	Energia
2002-2003	Ura
2003-2004	Mugikortasuna
2004-2005	Aisialdia
2005-2006	Aisialdia genero ikuspegitik
2006-2007	Hondaki solidoak

Heziketa ikuspegi honen beste oinarrietako bat curriculum berrikuntza da, eta hauek ditu zutabe nagusi: ingurumenarekiko sentsibilizazioa, ezagutzak eskuratzea, arazoak konpontzeko gaitasuna eta balioak argitzea.

Horretarako, ingurumenaren arazoekiko sentsibilizazioari garrantzi berezia eman behar zaio haurtzarotik. Horrela, sentsibilizazio ekintzak burutzen dituzte Samaniego ikastetxean, besteak beste: Autorik gabeko eguna, zuhaitz eguna, patio garbiketa, berzicklake-

ta, irteerak, klaustroari eta gurasoei formakuntza hitzaldiak...

Ikastetxea eredu

Ikastetxeko baliabideen kudeaketa arduratsua eta eraginkorra lortzea dute beste helburuetako bat. “Erabili eta bota” kulturatik, “birziklatu eta kontsumo murriztu” kulturarantz aurrera egiteko ahaleginak egiten ditu Samaniego ikastetxeko Hezkuntza Komunitateak.

Ikastetxea klima aldaketaren arazoarekiko arduratsua da. Horregatik Samaniego ikastetxeak jasangarri kontzeptua praktikan islatzeko aukera izan du Haur Hezkuntzarako egin den eraikin berriarekin. Bioklimatikoa eta jasangarria praktikan, Euskal Herrian eredu da, herritzailea, eta zentzu guztietan hezkuntza proiektuarekin koherentea.

Hauek dira eraikinaren ezaugarri berritzaileenak:

– Energia hartzeko sistema ugariak. Hala nola, beirazko galeria, trombe hormak, panel termikoak (ura berotzeko), panel fotovoltaikoak (energia elektrikoa sortzeko), haize errota eta argi tximinia.

– Ura aurrezteko neurri zehatzak: Alde batetik, eraikinaren estalkia “ur bizikoa” da, eta horrek eraikinaren tenperatura mantentzeaz gain, aurrezteko modua ematen du. Euri ura bildu eta berrerabili egiten dute, komunitarako zein baratza ureztatzeko.

– Eraikinaren ikuspegi didaktikoa. Eraikuntzan zehar, ingurumena eta eraikinarekin lotura duten panel didaktikoak daude, hezkuntza komunitateari informazioa zabalduz.

Haurrek txikitatik biziko dute zer den eraikin bioklimatiko bat, energia alternatibo bakoitzeko ereduak izango dituzte, ukitu egingo dute, eta zuzenean ikusiko dute nola funtzionatzen duen, parte hartuz ikastetxearen kudeaketan.

10 urte eta gero, zer?

Ingurumen hezkuntza egin beharreko zeregin zaila eta konplexua da, hezkuntza komunitate osoa inplikatu dago eta jarreraren eta ohituren aldaketa suposatzen du. 10 urte eta gero ordea, burututako lanen emaitzak ikusteko gai gara:

– Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzen dute, eraikinaren zainketan, ekintzen proposamenen... benetan sentitzen baitute beraien hitza entzunda.

– Hondakinekin arduratsuagoak dira, patioa garbiagoa egoten da, eta geletan hondakinen bereizketa modu naturalean ematen da.

– Ingurumen batzordetik pasa diren ikasleak ingurumen batzordera bueltatzeko joera dute, bizitakoari berriro ere jarraipena emateko, DBHn daudenean. Horrela, AGENDA 21eko foroan gaur egun elkar ikusten dugu, eta horrek jarritako haziaren jarraipena islatzen digu.

– Guraso aldetik ere esan dezakegu sentsibilizazioa nabarmen areagotu dela: eraikin berrirako azaldu duten interesa, hamaiketarako eta urtebetetzerako egin diren aldaketak, autoen konpartitza, herri busa erabilpena handiagotzea, eskolako jaiialdirako ematen diren aholku iraunkorrak...

– Irakaslegoaren aldetik ere ohituren aldaketa eman da, irakasten eta egiten dugunaren artean koherentzia bilatuz: handitu egin da oinezko kopurua eta bizikletaren erabiltzaileak.

– Iniziatibak ikastetxe osotik ateratzen dira; idazkaritzan ere ohitura aldaketa eman da –paper berziklatuaren erabilera, berrerabiltzea, gutunazalak... zaintzen dituzte–, berziklaketa eskola osora zabaldu da, jantokiko antolakuntzan eragina ikusi da...

– Hezkuntza komunitateak herri mailako kudeaketan duen eragina erreala da. Proposamenak herrira iritsi, eta hauek islada izan dute herrian; herriko hondakinen kudeaketan, parkeen sorreran, bidegorriaren eraketan...

Honek guztiak ondo egindako lanaren harrotasuna uzten du beraien baitan. Zailtasunak egon dira, eta egongo dira, urtero baitaude erronka berriak. Ingurumenarekin duten harremana ordea ez da nolana hiko, eta horretan jarraitzeko asmo tinkoa erakusten dute, beti ere, orainaren eta etorkizunaren garapen jasangarriaren alde.

**Eduarne Gartzia eta Arantza Iruretagoiena, Samaniego ikastetxeko irakasleak*

Eskola inklusiboa: Gasteizko Ramón Bajo ikastetxea

“Badakigu eskola inklusiboa ez dela dohainik, ezta merkea ere. Administrazioak behar den inbertsioarekin ez badio aurre egiten, eskola komunitatearen indarrak ez dira nahikoak izango utopiarako bidean aurrera jarraitzeko.”

Hezkuntzari buruzko eztabaidetan zenbaitetan badirudi hezkuntzan oraindik dena egiteke daukagula, eskola inklusiboa eta kulturartekoa urrutiko utopia baino ez dela. Baina esan behar da hainbat ikastetxetan utopiarako bidean urrats sendoak egiten ari direla eta hainbat hezkuntzako profesionalak bere eguneroko jardueran ahaleginak egiten dituztela norabide horretan.

Haietako bat Ramón Bajo ikastetxea da eta Gasteizko Alde Zaharrean dago; ikastetxe hori da, hain zuzen, auzo horretan dagoen bakarra. Irakasleak, zuzendaritza taldea eta gurasoen elkarte biziki konprometitu daude kalitatezko hezkuntza inklusiboarekin, irakas-kuntza arloko ikerlariak egun defendatzen dituzten

hezkuntza parametroen arabera: eskola txikia, tamaina humanokoa eta kudeaketa humanokoa, non partaideek pertenezia zentzua daukaten, bere ingurunean sustraituta, auzo-eskola izatearen zentzua aldarrikatzen duena, testuinguruarekin harreman oparoak sortzen dituena. Esan dezakegu eredu "ekologikoa" dela.

Eskolaren ezaugarri deigarriena da, ziur aski, etorkinen proportzio handia. Ikasleen %70 etorkinen seme-alabak dira –marokorak, sahararrak, algeriarrak eta hegoamerikarrak batez ere–; ijitoak kontatuta, gutxiengo etnikoen ikasleak kopuru osoaren %82 dira. Argi utzi behar da, baina, hori ez dela auzoaren konposizioa: etorkinen eta ijitoen kopurua ez da bertako populazioaren %20ra heltzen eta datu horrek argi azal-

tzen du eskolan gheztizazio prozesu bat gertatu dela eta auzoko familia autoktono ez ijitoek –auzoko gehienek– hiriko beste eskoletan matrikulatzen dituztela seme-alabak. Ikasle berriak etengabe heltzen dira eskolara: 2006-07 ikasturtean 40 ume baino gehiago iritsi dira matrikulazio epez kanpo, adin guztietakoak.

Eskola transformazio prozesuan dago murgilduta auzoaren eskakizunei egoki eta kalitatearekin erantzuteko ahaleginean. Prozesu horren alderdi garrantzitsu bat ereduaren aldaketa da. Duela lau urte D ereduko bi urteko gela bat abiatu zen bertan, Atik Drako aldatetari hasiera emanez. Uneotan haur hezkuntza guztia D ereduan eskaintzen da eta A eredia agortzen doa. Eredu bakarraren alde egin zen apustua, besteak beste ikastetxe batean bi eredu daudenean, umeak gizarte mailaren arabera ereduak banatzearen arriskua dagoe-lako. Azaldu behar da ijitoen eta etorkinen familiek normaltasun osoz jarraitzen dutela umeak bertara eramaten, egun D ereduan. Auzoko autoktono ez ijitoak ere hasi dira –azkenik!– eskolan matrikulatzen.

Azpitarratzekoa da eskolak kulturantzatasuna altxor moduan ikusten duela. Etorkinak geletan izatea aberasgarritzat jotzen da eta aniztasun hori aukera pedagogiko bat bihurtzen saiatzen da. Eskolako filosofian badago bertako kulturantzatasuna benetako kulturartekotasun bihurtzeko ahalegina eta helburu hori eskolako giroan sentitzen da. Halaber eskola kontziente da bere ingurunean daukan rol kohesionatzailea funtsezkoa dela: eskolari esker auzoko umeak –jatorria zein den– eta haien familiak harremanetan sartzeko; taldeen arteko mesfidantzak gainditzeko modu naturalea da. Horretarako, noski, geletan autoktono ez ijitoen kopuru handiagoa egotea nahitaezko baldintza da, auzoko benetako konposizio soziala islatu arte alegia.

Eskola honetan eskola komunitatearen partaidetza estimatzen eta bultzatzen da. Esan behar da familien partaidetza ez dela beti erraza. Familien elkarteak ahalegina egiten du bai bertako familiek bai etorkinek eskolako bizitzan parte har dezaten. Horretarako bileren nagusien egunetan arabiera itzultzaile bat egoten da eta baita umeak zaintzeko pertsona bat ere. Hala ere, zaila da etorri berriek eta konkretuki amek “bilera” formatuan parte hartzea. Askok ez daukate ohiturarik eta arrotza egiten zaie modu hori. Eta ez dakite ondo hizkuntza. Beste formatu batzuetan, berriz, bai hartzen dute parte eta oso aktiboki. Ikusgarria izan da, adibidez, gurasoen –eta batez ere amen– laguntza eta par-

taidetza eskolako ume guztiak Korrika Txikira atera zirenean, edo auzoan zehar Santa Ageda kantatzen ibili zirenean, edo San Prudentzio festa Alde Zaharreko kaleetan ospatu zutenean.

Aita bat pintura eskolak ematen ari da egunotan plastika ikasgaiaren barruan. Ama batek jostun moduan eskaini du bere burua eta Haur Hezkuntzako irakasle batekin ehuneko etxe bat ari da prestatzen. Horrelakoetan ahalegina ez da bakarrik gurasoen partaidetza lortzea, baizik eta gurasoen proposamenei leku egokia bilatzea.

Eskolako ekosisteman kalitatezko ordu estraeskolarrak oso inportanteak dira. LHko umeek kirol jarduerak dauzkate astean zehar. Kirol hezitzaileek proiektu integratzaile bat jarri dute abian jarduera horietan hainbat jarrera eta prozedura lantzeko: higiena, elkar laguntza, hezkidetzak, puntualitatea, taldearekin konpromisoa, joko garbia... Jarduera horiek, bestalde, oso lagungarriak dira etorri berrientzako integrazio gune moduan; bertako hizkuntza ez dakitenentzat kirola eta jolasa harremanetan sartzeko modu ezin hobekak izan daitezke. Jarduerak auzoko beste umei daude irekita.

Irakasle marokoar batek arabiera eskolak eskaintzen ditu eskolako ordutegitik kanpo, batez ere arabiera dakiten umeek irakurtzen eta idazten ikas dezaten; jakina da zein inportantea den familiaren hizkuntza ondo jakitea. Harrera ona izan du ekimen horrek eta auzoko beste ume batzuek ere eman dute izena klase horietan. Jarduera bera eztabaidatua izan da, baina hausnarketa baten ondoren aurrera eramatea erabaki da. Datorren urteari begira pentsatu behar da aukera hori arabiera ez dakiten umeentzat ere zabalduko den.

Bestalde, irakasle jubilatuta batek gaztelera eskolak ematen ditu astean behin modu boluntarioan. Joaten diren pertsona gehienak ama marokoarrak eta algeriarak dira. Jarduera oso arrakastatsua da. Halaber, emakumeentzat dantza-gimnasia ere eskaintzen da astean bi aldiz eskolako gimnasioan, kultur aniztasun giroan eta musu-truk. Partaideek umeak ekar ditzakete eta haien zaintza konpartitzen dute. Eskolako amez gain, auzoko beste emakume batzuek ere parte hartzen dute.

Ez dira horiek ikastetxeak ingurunearekin dauzkan harreman bakarrak. Eskolak –alegia, zuzendaritzak eta gurasoen elkarteak– eta auzoko Gizarte Zentroaren kale hezitzaileek komunikazio harreman estua daukate eta ume jakin batzuen inguruan esku hartze koordi-

natua jartzen dute abian. Auzoko Hala Bedi irratia eta eskolaren artean ere kolaborazio aberatsa dago; Amanda Plataforman hainbat eragile daude eskolarekin batera lan egiteko biziki interesatuta; auzoko AZAO Alde Zaharraren Aldeko plataformaren partaideek aurre-matrikula kanpainaren propagandaren diseinua eta banaketa egin dute...

Egia da, hala ere, asko direla horrelako eskola batek dauzkan erronkak. Haietako batzuk aipatu ditugu jada eta nagusienetako bat da, ziur aski, familia autoktonoak ere erakartzea. Eta beste eskola guztiek bezala helburu inportanteena du ikasleek ondo ikastea eta eskola-arrakasta izatea, bai akademikoki bai afektiboki. Baina badago beste erronka bat batere txikia ez dena eta besteak lortzen lagunduko lukeena, alegia, admi-

nistrazioaren aldetik behar diren baliabideak eskuratzzea. Irakasle gehiago, irakasle egonkor gehiago –gehienak behin-behinekoak direlako–, gestiorako ordu gehiago... Pentsa dezagun, adibidez, zer esan nahi duen eskola txiki batentzat urtero 40 ikasle berri baino gehiago epez kanpo jasotzeak. Badakigu eskola inklusiboa ez dela dohainik, ezta merkea ere. Aniztasunaren trataera egokia premiazkoak diren baliabideekin egin behar da, bestela ez da posible. Administrazioak errealitate horri behar den inbertsioarekin ez badio aurre egiten, profesionalen ahaleginak eta eskola komunitatearen indarrak ez dira nahikoak izango utopiarako bidean aurrera egiten jarraitzeko.

** Amelia Barquín, Eskoriatzako Irakasle Eskola*

Hezkidetzak Arrasaten

"Kultura maskulinoak zein femeninoak dituzten alde positiboak berreskuratzen ditu (Hezkidetzak), neskentzako zein mutilentzako giza garapenerako portaera ereduak izan daitezzen"



Bea Ugarte*

Gaur egun, beharbada inoiz baino gehiago azpimarratu behar dugu hezkidetzak hezkuntza mistoa baino askoz gehiago dela. Azken hau, neskak eta mutilak batera egotea eta heziketa bera jasotzea bada, hezkidetzak harago doa. Pertsonaren garapen integrala da bere helburua. Eta hau esateak gauza asko bultzatzea suposatzen du, alegia, esku hartze egokia izan dadin jendartean ditugun jarraibide sexistak ondo aztertzea, definitzen ditugun helburuak, edukiak, metodologiak, antolamenduak, ebaluazioak... estereotipo sexistatik kanpo izateaz gain, ikasleen pentsamenduan, jarreretan, portaeretan, munduaren pertzepzioetan... eraginkorrak izatea eta kulturek sexua eta generoa direla-eta bultzatzen dituzten bazterkeriei aurre hartzea, konpentsatzea edota ekiditea.

Pentsamendu feminista izan da hezkuntzari ikuspuntu hau eman diona eta ikusiko dugunez, eskaintzen dituen irizpideek eta jarraibideek bazterkeri sexistaz gain, bestelako arazoei ere aurre egiten diete. Generoak eta beraien arteko hierarkia zalantzan jartzeak pertsona eta jendarte ereduak, pertsonen arteko harremanak, herrikoen, kulturen artekoak, boterea gauzatzeko moduak... birplanteatzea suposatzen du.

Gaur egun, Hezkidetzaren helburua mekanismo baztertzailak desagertzea da eskolako egitura formaletan, baina baita ere, bere ideologian eta hezkuntza esku hartze guztietan.

Kultura maskulinoak zein femeninoak dituzten alde positiboak berreskuratzen ditu, neskentzako zein mutilentzako giza garapenerako portaera ereduak izan daitezzen.

Beraz, benetan eredu parekidea eta justuagoa nahi badugu, ikastetxean egiten duguna sakon hausnar-tea ezinbestekoa da.

Aipatzeko esperientzia eta egiteko modu ezberdi-nak daude, baina kasu honetan gustatuko litzaidake Arrasate (Gipuzkoa) herrian hamar urtetik hona dagoen hezkidetzaren esperientzia nabarmentzea. Beti ere, egiten dena garrantzitsua izatearren, prozesua bera azpimarratuko dut, badituelako, nire ustez, alde batetik horrelako ibilbideek izaten dituzten zailtasu-nei aurre egiteko errazten dituzten eta, beste aldetik, proiektuari egonkortasuna ematen dioten kontuan hartzeko hainbat ezaugarri.

Ibilbide propioa. Herriko ikastetxe guztiek parte hartzen dute, baina ikastetxe bakoitzak bere erritmoa eta garapen propioa izan du eta hasieran denak egon ez arren orain denak daude.

Hezkuntza komunitatearen partaidetza. Prozesuan irakasleak, familiak eta ikasleak daude.

Herri mailakoa. Udalak hezkuntza eragile guztiak koordinatzen ditu, horretarako osatua dagoen hezki-detzaren mahaian. Bertan ikastetxe bakoitzeko ibilbi-deak, beharrak, ikastetxeek partekatuko dituzten herri mailako jarduerak... kontuan izaten dira urteko plangintza egiteko.

Eduki-ardatz komunak. Ikastetxe bakoitzak nahiz eta ibilbide propioa izan, beraien artean komunean dituzte hainbat aspektu:

✓ Familiarekin lantzen den materiala. Ikasleek tuto-retza orduetan lantzen dituzten generotik aztertutako gaiarekin lotuta dago material hori: nor bere burua ezagutzeko, maitasuna, harremanak, indarkeria, erant-zukizuna, aisialdia, gorputza, sexualitatea...

✓ Tutoretza da aldaketa prozesua hasteko aukera-tutako arloa, baina ondoren, beste ikasgaietan alda-ketak egiteko premia sortzen da: emakumeen presen-tzia areagotzea, hizkuntzaren erabilera ez sexista, lankidetzaren oinarritutako metodologia, ebaluazio-adierazleen artean aspektu emozionala ere kontuan izatea... Antolamenduan eta araudian ere moldake-tak egiteko beharra sortzen da, adibidez, bizikidetzaren erregulatzeko gune berriak –lasaitzeko txokoa, lagun taldea, ikasleen bizikidetzaren batzordea...– edo araudia sortzeko prozesuak neskek zein mutilek dituzten beharrak ditu abiapuntua.

✓ Bost dira hezkidetzaren ereduak lantzeko kontuan dituzten pertsonaren eremuak: identitatearena, sozia-

la, emozionala, adimena eta gorputza. Hauek era sis-tematikoa lantzen dira, pertsonaren garapenerako ezinbestekoak diren bi alderdi jorratuz, autonomia eta botere pertsonala, ezinbestekoak hauek ere, bes-talde, norbere identitate pertsonalaren garapenerako.

✓ Bost dira gelako jarduerak programatzeko kon-tuan dituzten irakaskuntza-ikaskuntza gakoak: sinto-nia, bizikidetzaren, ikastea, komunikazioa eta gatazken ebazpena.

✓ Martxoaren 8aren inguruan herri mailako ekin-tzetan parte hartzen dute ikastetxe guztiak.

Ikerketa-ekintza metodologia. Ikasleentzako presta-tzen diren jarduerak irakasleek prestakuntza saioetan egin eta baloratzen dituzte. Gero, ikasleek egin ondo-ren, hauen balorazioa ere jasotzen da eta jasotako hobetzeko proposamenak eta egokitzapenak kontuan izanik, programazioan sartzen dira jarduerak. Dinami-ka hau oso aberatsa da, irakasleentzako aukera ezin hobea delako ikasleei lagundu behar dieten prozesua elkarrekin pentsatu, bizi eta ziurtasuna hartzeko. Hausnarketa eta erabakiak hartze prozesu honetan adimen globala lantzen dute, hau da, gure kultura patriarkalean inposatu den pentsamendu dikotomikoa (arrazoimena/sentimendua) gaindituko duen adime-na. Pentsatu, sentitu, esan eta egiten dugunaren arte-ko koherentzia bilatuko duen adimena, bizitzako esparru bakoitzean gertatzen denari erantzun egokia emateko gai bihurtzen duen adimena.

Kultura berri bat eraikiz, poliki-poliki, baina aldi berean sendo emandako urratsak dira, nor bere boterea erabiltzen ikasiz, neskek zein mutilek bere bizitzaren jabe izateko sexu eta genero estereotipo-etatik kanpoko identitatea gara dezaten.

** Gasteizko Berritzeguneko kidea.*

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa:

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP

SCOOP.